

cionan “en la práctica y para la práctica”, según la expresión de Bourdieu. Lo cual significa: a) un acercamiento a “hombres totales”, b) dotar a las representaciones sociales de un contenido y situarlas dentro de “realidades de acción” (Weber), c) atender a la “posición de cada uno de los grupos” y “de las condiciones” en que los conocimientos y representaciones se manifiestan (Bourdieu), d) considerar las representaciones sociales en un doble aspecto dinámico, esto es, el papel que juegan en la construcción y transformación de lo social (Bourdieu y Jodelet), y e) “determinar” desde qué instancia (o instancias) política, cultural o religiosa se proyectan las representaciones sociales (Jodelet).

El segundo aspecto que la investigación de Aliende acaba reforzando desde el punto de teórico es la importancia de las instituciones en la producción y reproducción de lo social. El análisis del papel que desempeñan es complejo debido, entre otras razones, al hecho de que ellas mismas parten de lo social y se hallan relacionadas con múltiples y variados aspectos de lo social. Por ello, el mejor modo de resolver las dificultades teóricas y analíticas que encierra el estudio de las instituciones consiste en investigar instituciones concretas, en épocas y lugares específicos y en prácticas concretas. Ojalá otros muchos investigadores, de la calidad y capacidad intelectual y de trabajo de Ana Aliende, sigan sus pasos.

Juan María Sánchez Prieto



ALONSO CARBALLÉS, Jesús J.

1937. Los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica. Historia y memoria de un éxodo infantil, 1936-1940

Bilbao : Asociación de Niños Evacuados el 37, 1998. – 774 p. : fot. Al. y n. + 2 mapas ; 25 cm. – ISBN: 84-605-8332-9

“1937 Los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica” liburuaren azpiazelean azaltzen zaizkigun Suitzako Luzernak, Bilbok eta Salamankak zehazten dute bere egilea Jesús Javier Alonso Carballésen ibilbide bizigeografikoa. Hau dela eta, nere aldetik ausarteria handia ez bada, ausartuko nintzateke erratera bizibide horrek akuilatu duela ikerlari gazte hau aztergai dugun lana jorrazteko. Alde batetik Suitzan egileak berak izandako haurtzaroak erbesterratu politiko eta ekonomikoen hurbilketa ekarri omen ziolako. Eta bestetik, Bilbon eta Salamankan bizitzeak eta iharduteak esparru eta lanabes zientifikoak ornitu dizkiolako Alonso Carballési. Izan ere Max Aubek esan zuenari –Batxilerra egiten dugun lekukoak, bertakoak gara gu– eremu zabalagoa emanez Salamankan zabaldu zuen bere formakuntza zientifikoa eta bizi ibilera liburu horren egileak.

Jakina denez 1936-1939.ko gerraren inguruan ikertzeko tenorean Salamankan ihardutea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, erabat kontrakoa baizik. Hiri honetan frankistek oposizioa

erreprimitzeko sortu zuten artxibategiak informazio aberatsenetakoa du 1936.ko gerra kon-tuetaz baita II. Errepublikako erremuetaz ere. Alonsok berak aipatzen duen legez, hor landu ditu, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak umeak erbestera bidaltzeko atondu zituen 8.000 txos-tenak edo fitxak. Dokumentazio zehatz hori ez ezik, erbesteratzearen erro historikoak nahiz testuingurua osatzen duten dokumentu ugari ere hortxe bertan ditugu. Galtzaile suertatu ziren elkarte, alderdi eta militanteen jazarkundea oinarritzeko hara eramandako agiriak, gaur egun, beste helburu askoz duinagoa betetzeko, sektore hauen historia izkiriatzeko alegia ezinbestekoak bezain baliogarriak dira. Honetaz baliatuz Salamankako unibertsitateko hainbat historiagilek ekimen arras interesgarriak burutu dituzte azken urteotan Espainiako gerra zibilari buruz baita gatazka horrek ekarritako ondorioetaz ere.

Ildo horretan kokatu behar ditugu Jesús Javier Alonso Carballésen ikerlanak. Lehendabizikoak unibertsitate horrek egituratu zituen “Españoles en Francia 1936-1946” eta “Emigración y Exilio Españoles en Francia 1936-1946” direlako biltzarretan egindako komuni-kazioen bitartez, plazaratu ondoren, oraingoan emaitza askoz esanguratsuagoa dugu. Salamankan, Euskal Erkidego autonomoan, bereziki Bizkaian, Frantzian eta Belgikan dauden dokumentazio-iturrietatik edan du 1937.z geroztik, Espainiako gerraren eraginez, Pirineoz beste aldera jo zuten umeen historia osotu bat isladatzeko asmoz. Ordurako haur erbestera-tuen esparru historikoa landuta zuten hainbat ikerlarik. Gogora ditzagun Gregorio Arriek, Dorothy Legarretak, edo Xabier Goitiak buruturiko lanak. Bide batez, Luis Castresanaren “testigantza eleberritu handia” edo Javier Sagastizabalen oroimen liburua. Dena den, hauek bezalako aitzindariak izan bazituen ere estraineko aldiz Alonso Carballésék Doktoradutza tesi mailara eraman du euskal ume atzerriratuei gertaturikoa. Kanpoko zein barruko artxiboetako agiriak erabiliz, ia ia ehun ahozko testigantzak tartekatuz, historia akademikoak zokoratuta zuten ume hauen mundua Historiako orrialdetara ekarri du profesionaltasun handiz aipaturi-ko historiagileak. Hau dela eta esan dezakegu ikerketa osotua burutu duela, milaka ume erbesteratzeak izan zituen epe eta ezaugarri gehienak kontutan hartuz. Besteak beste liburu honetan ikus daitezke: Ebakuazioaren arrazoiak eta bidaien sorta, Ihes masiboen helbidera-tzeak eta beraien mota desberdinak (Koloniak, familiak, aterpelekuak); horietan zeuden bitar-tean bizi izandakoa, eta kasu gehienetan aro honi eman zion amaiera, Euskal Herrira itzultzea hain zuzen ere.

Nafarroatik eta Arabatik izan ziren helduen zein umeen ihesak kontutan hartu gabe, Alonso Carballésék Behobia-lrungo borrokaldiarekin hasiera ematen dio ihesaldien historiari. Iparraldean atzerriratze hauek sortarazi zituzten harrerak zein erantzun kontrajarriak bistan jartzen dizkigu: Baionako alkateak “l’hospitalité la plus large et la plus fraternelle” burutzea eskatzen zuen bitartean, beste batzuek “La France deviendra-t-elle la poubelle interna-tionale” errandakoan 1939.an, gerra amaitu zenean alegia, ohiartzun handia izanen zuten errefu-xiatuen kontrako jarrerak iragartzen zituzten.

Hala eta guztiz ere, ikerlan honetan azaltzen den bezala, eritzi guzti hauen gainetik fran-kisten erasoaldien arabera gauzatu zen atzerriratze masiboari aurre egin behar zioten ez bakarrik Iparraldean, baizik eta Frantzia osoan, Belgikan edo askoz urrunago ditugun SESBen eta Mexiko bezalako lurraldetan. 1937.an Frantziako agintariak gauza izan ziren erbesteratze hauei aurre egiteko, 1939.an aldiz ez. Desberdintasun honen arrazoa ez datza erbesteratuen kopuru haundiagoan, Frantziako agintean suertaturiko aldaketa politikoan bai-zik. Geneviève Dreyfus-Armandek bere “L’Exil des républicains espagnols en France” libu-ruan nabarmendu duenez, 1938.z geroztik bistan zegoen Gobernu frantziarraren aldetik errefuxiatuen kontrako jarrera. Barne ministraria zen Albert Sarrautek bere ardurua eskuratu bezain laster jakinerazi zuen bere asmo hau: Aurrera eramatea “une action méthodique, énergique et prompte en vue de débarrasser notre pays des éléments indésirables trop

nombreux qui y circulent”. Hau zela eta “rapatriement” delakoaren politikaren bitartez amaitu zen errefuxiatu askorentzat, umeentzat batik bat, Frantzia gotea.

Zehaztasun haundiz barku guztien ibilerak gogorazten digu ikerlan honek: “Habana” ontzi ospetsuenatik “Pesquero Alfonso” bezalako ontzi xumeraino. Izan ere 129-130 orrialde-tan ditugun lauki esanguratsuek laburbiltzen dizkigute ontzi horiek Kantauritik zehar burutu zituzten salbazio-txangoak. Era berean, bigarren atalean –Euskal ume errefuxiatuak Frantzia izenburua duena– horiek babesteko hexagonoan barrena martxan jarri zituzten inizatiba aunitz eta desberdinak irakurgai ditugu. Tokian tokiko aginte politikoez gain, CAAE bezalako elkarteen bitartez talde ezkertiarren elkartasuna, Eusko Jaurlaritzak sustengaturiko inziati-bak, sektore kristauenak, Manuel Intxaustiren “Euzko Aur Etxea” eta abar.

Frantzia babesleku atzerriko ume gehienek izan zuten arren, 3000tik gora Belgikaratu zituztelako, azken estatu honetara ere luzatu du bere arreta Jesús Alonsok metodologia bera erabiliz. Frantziakoan bezalako deskribapen zehatza burutu ondoren orduko umeek izan zituzten bizierak gogorazteari eskeini dio bostgarren atala, egoera arras desberdinak izan zirela nabarmenduz. Errate baterako, famili mailan biziutakoen artean oroitzen ederrak nagusitzen diren arren, ez dira falta senide berrien artean igarotako esperientzia latzak. Beste maila batzuei dagokionez, gehienek beraien hizkuntza, ohiturak, atzerrikoak hartzearen truke baztertu zituzten bitartean, gutxiengo batek, Eusko Jaurlaritzaren eraginez martxan jarritako kolonietan egon zenak, euskal kulturari eutsi zion erbestean ihardun zuenean. Arlo zehatz honi arreta haundiagoa ematea eskertuko litzateke Carballedések egin ditzazken hurrengo lanetan. Era berean faltan sumatzen ditugun euskeraz emandako testigantzak. Frantsesezko testuek, lekukotasunek eta agiriek mintzagai dugun liburu honetan beraien esparru duina erdietsi duten bitartean, atzerrira joandako euskal ume askoren mintzaira berriz, hutsaren hurrengo dugu. Ume guzti hauen itzulerak itxi egin zuen 1936.ko udan ireki zen gerra aroa eta 1937.z gerostiko erbesteraldia. Ez aldiz sofrikarioarena. Liburuko azken atalean azaltzen den bezala erbestetik itzultzea frankisten menpe zegoen Estatura, ondorio guztiekin, bueltatzea zen: Gabezia, gosetea eta larrialdia kasu aunitzetan, zampaketa politi-koa guztietan. Umeak ziren arren, nahiko ardua zuten jabetzeko egoera berriaren ezaugarri tamalgarrietaz, liburu honetako azken orrialdeek erakusten duten legez. Gehigarri gisa jarri dituen 15000 ume erbesteratuen ezaugarriak –izena eta abizena, bizilekua, adina, atzerrile- kua, itzulera data– aberasten dute liburuak. Erbesteraldiak, izen horien bitartez aurpegi zeha- tzak hartzeaz gain tragediaren maila erakusten du argi eta garbi beraien omenerako baita gerra-erbesteratzea sortarazi zituzten frankisten lotsarako ere. Hitz gutxitan erranda batzuk eta besteak Historiaratu ditu, era txukun txukun batez, Jesus Alonso Carballedések izkiriatu eta “37an Atzerriraturiko Haurren Elkarteak” kaleratu duen liburuak.

Josu Chueca Intxusta